

## AMODIO EDERRAREN AMARI.

### Kantarteia.

O Maria lora, lora guztietan  
 Sekula maiztuten<sup>1</sup> etzareana,  
 Zugaitik jadichi daigula frutua  
 Amodio gozo gozoarena.

### Kantaldiak.

Landararik liraiñ eskertsuenakaz<sup>2</sup>  
 Lorategietan galanten zara  
 Amodio garbi ederraren Ama  
 Eztitasunezko ortu bakarra,  
 Zure sabel guztiz zorionekotik  
 Jayo zan lorarik egokiena,  
 Zugaitik jadichi daigula frutua  
 Amodio gozo gozoarena.

Ezkutapenezko landa loratsua,  
 Semeak deusuez gaur alabantzak  
 Kantetan poz pozik samurtasuna-  
 Edertasunezko zure garaitzak. (gaz  
*Zinamomo-aren* dozu usaiñ ori,  
 Galantasun ori *franzesillena*,  
 Zugaitik jadichi daigula frutua  
 Amodio gozo gozoarena.

*Zedroa* legeche eregiten zara,  
*Palmea-ren* gisan goruntz aziten,  
*Platanoa* legez baita zabalduten  
*Zipres-en* antzera goyan amaitzen;  
 Orregaitik gozuz zuri kantetara  
 Iguitu Amarik maitetsuena,  
 Zugaitik jadichi daigula frutua  
 Amodio gozo gozoarena.

Sortueran zara *lirio* zuria  
 Seingintzàn *betiko-lora* polita,  
 Eta *sensitiba* bizitza guztian  
 Pasiñoan zara zu *bioleta*,  
 Barriz biztueran karminiñaren gisan  
*Larrosa* gorrien antzekoena,  
 Zugaitik jadichi daigula frutua  
 Amodio gozo gozoarena.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

(1) Maiztu=ajar.—(2) Eskertsua=egokia.